

ZER DA ERASMUS +?

Hezkuntza-programa europarrak 6 urteko zikloetarako Batzorde Europarretik finantzatzen dira.

Gauden 2014/2020ko aldirako, programak **ERASMUS + du izena, programa integratu** bat da eta hezkuntza, prestakuntza eta gazteriaren eremuetan programa europarretan hogeita bost urte baino gehiagoko ibilbidean izandako lorpenak ditu oinarri. Horregatik, Batzordeak 2007-2013ko aldian gauzatutako ondorengo programa europarren integrazioaren emaitza da:

Etengabeko Ikaskuntza Programa,

Gazteria Ekintzan Programa,

Erasmus Mundus programa,

Tempus,

Alfa,

Edulink,

Goi hezkuntzaren arloan herrialde industrializatuekin gauzatzen diren lankidetzeta-programak.

Hau jakitea garrantzitsua da: izena **ERASMUS + den arren, unibertsitaterako ez ezik, hezkuntza-maila GUZTIETARAKO ere dira programa horren barruan sartzen diren jarduerak**; hots, maila hauetarako: eskola-maila, Lanbide Heziketa, goi hezkuntza, gazteria, kirola eta helduen hezkuntza.

Erasmus + programak, besteak beste, 2020ko estrategia europarraren helburuak, hezkuntzari buruzko helburu nagusia barne, lortzeko izan beharko du lagungarri. Horretarako, etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna sustatuko dira eta hezkuntza eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetuko dira.

Erasmus + 3 funtsezko jardueratan egituratzen da:

- **1-(KA1) funtsezko jarduera. Ikaskuntzarako mugikortasuna.**

Europako irakasleen PRESTAKUNTZARI /IKASKUNTZARI buruzko guztia sartzen du, baina ez da inoiz banakako eskaeraren formatuan agertzen; IKASTETXEAREN prestakuntza-proiektu bat da eta proiektu horretan ikastetxe horretako irakasleen prestakuntza-premiak sartzen dira.

- **2-(KA2) funtsezko jarduera. Lankidetzeta.**

Hemen sartzen dira ikastetxeen arteko edo beste hezkuntzako erakunde batzuen elkarteak berrikuntza bila edo praktika onen trukerako.

- **3-(KA3) funtsezko jarduera. Politiken eraberritzea.**

Jarduera honek hezkuntza, prestakuntza eta gazteriaren eremuetan sustatzen ditu ezagutzak, kontrastatutako politikak eta jarraipena egiteko jarduerak formulatzeko.